



**GAUEKO AISIALDIKO ESTABLEZIMENDUEN TITULARREI**  
**ZUZENDUTAKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN** AGINDUA.  
**MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK.**

**1.- Nork eskuratu ahal izango ditu?**

Agindu honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare banandu bat osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen elkarrekin eta EAeko gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan badago haien egoitza fiskala eta soziala, bai eta lantokia ere.

Ondorio horietarako, "Gaueko aisialdiko establezimenduen titularrak" izango dira gaueko aisialdiko establezimenduetan ostalaritza-jarduera garatzen duten pertsonak edo erakundeak.

Laguntza hauen ondorioetarako, gaueko aisialdiko establezimenduetzat hartzen dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 32.2 artikuluko III. Taldean<sup>1</sup> sailkatutako pubak eta taberna bereziak eta IV. taldean sailkatutako dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, betiere haren jarduerak inpakturik pairatu badu COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiarengatik eta alta emanda dagoen horien EJSN kodea edo Agindu honen ondorioetarako baliokidea den EJZren epigrafe hurrengo apartatuan adierazitakoarekin bat badatoz:

<b>EJSN kodea</b>	<b>EJZ epigraf ea</b>	<b>Epígrafearen testua</b>
5630	16731	Kafetegi eta tabernetan. Kategoria berezikoak.
5630	16732	Kafetegi eta tabernetan. Bestelako kafetegi eta tabernak.
5630	16746	Kafetegi eta tabernetan. Antzokietan eta gainerako ikuskizunetan ezarritako zerbitzuak, zeinak ikuskizunaren orduetan bakarrik egoten baitira irekita.
9329	19691	Dantza-aretoak eta diskotekak

1. <sup>1</sup> Aisialdi erotikoko establezimenduak laguntza horietatik kanpo geratzen dira.

Eta ixteko ordutegiak honako hauek badira, betiere:

a) **III. taldea:** ixteko ordua, 02:30ean.

- Pubak eta taberna bereziak

b) **IV. taldea:** itxiera-ordua, 04:30ean.

- Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

## 2.- Zein da laguntzaren zenbateko osoa?

12.600.000 euro. Zenbateko hori handitu ahal izango da, beharrezkoa izanez gero. Gehikuntza hori gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

## 3.- Nork ezin ditu eskatu?

- Kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, edo beste erakunde batzuk, baldin eta administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek kapitalean edo gobernu-organotan gehiengo partaidetza badute.
- III. taldean sailkatutako aisialdi erotikoko establezimenduak

## 4.- Zer eskakizun bete behar du pertsona edo erakunde eskatzaileak

- a) Gaueko aisialdiko establezimenduzat hartutako establezimendu baten titularra izatea gutxienez, dokumentu honen 1. galderan jasota dagoen moduan.
- b) Laguntza eskatzen den establezimenduan jarduteko edo irekitzeko lizentzia edukitzea **2021eko urtarrilaren 1ean.**
- c) Dokumentu honen 1. galderan jasotako jardueraren batean aritzea **2021eko ekainaren 1ean.**
- d) Laguntza eskatzen den establezimenduaren egoitza soziala eta fiskala EAEn izatea eta establezimendua bertan egotea, hori guztia **2021eko ekainaren 1ean.**
- e) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea **2021eko ekainaren 1ean.**
- f) EJSN kodean sartuta egotea edo EJZn alta emanda egotea, 1. galderan jasota dagoen moduan, **2021eko ekainaren 1ean.**
- g) Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eskaeraren xede den establezimenduan langileak baditu, **2021eko ekainaren 1ean alta-egoeran egon beharko dute.**
- h) **Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea.** Pertsona edo erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren

Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egon beharko du (banku-datuek erregistro horretan agertu behar dute). Pertsona edo erakunde eskatzaileak, eskaera egitean, alta eman ahal izango du edo aurretik gehitutako informazioa aldatu ahal izango du, dagokionaren arabera, modu telematikoan, [www.euskadi.eus/hirugarrenenalta-jarraibideak](http://www.euskadi.eus/hirugarrenenalta-jarraibideak) helbidean dauden jarraibideen arabera.

Nolanahi ere, Hirugarrenen Erregistroan alta ematea edo datuak aldatzea eskatzaileak berak egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, edo ordezkari batek haren izenean, baldin eta ordezkari hori alta emanda badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen ahalordetzeen erregistro elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>).

- i) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. (baldintza hori bi unetan bete beharko da: laguntza emateko ebazpena eman aurretik eta hura ordaindu aurretik).
- j) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- k) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debekurik (sexuagatiko diskriminazioagatik sortutakoak barne).
- l) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko betekizunei dagokienez.

Galdera honetako a), b), c), d), e) eta f) letretan jasotako betekizunei eutsi egin beharko zaie, gutxienez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik (2021eko urriaren 7a) hurrengo lau hilabeteetan.

### **5.- Itzuli beharreko laguntza al da?**

Ez. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da. Zuzeneko laguntza da.

### **6.- Zein da laguntzen zenbatekoa?**

Pertsona edo erakunde onuradunari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, eskabideari dagokion establezimenduan 2021eko ekainaren 1ean alta-egoeran zeuden langileen kopurua hartuko da aintzakotzat, ondoren zehazten den moduan:

- III. TALDEKO establezimenduak. Pubak eta taberna bereziak; itxiera-ordua, 02:30ean.
  - 10 langile baino gutxiago: 10.000 euroko laguntza.
  - 10 langile edo gehiago: 15.000 euroko laguntza.

- IV. TALDEKO establezimenduak. Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak; itxiera-ordua, 04:30ean.

- 10 langile baino gutxiago: 15.000 euroko laguntza.
- 10 langile edo gehiago: 35.000 euroko laguntza.

Kasu guztietan ere, langile guztien zenbaketan autonomoak ez ezik, soldatapekoak ere sartuko dira, barne hartuta jardunean daudenak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean daudenak, lan-harremana etenda daukatenak eta jarduera utzita daudenak. Langile berak lantoki bakarrean egon ahalko du atxikita.

### **7.- Autonomoen kasuan, nola zenbatuko dira langileak?**

Lau egoera eman daitezke:

- 1.- Eskatzailea langile autonomoa, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada (bertako kideek autonomo gisa alta eman behar dute) eta plantillan langilerik ez badute, establezimenduaren titularra/titularrak zenbatuko dira.
- 2.- Eskatzailea langile autonomoa, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada (bertako kideek autonomo gisa alta eman behar dute) eta plantillan langile autonomo laguntzaileak baino ez badituzte, establezimenduaren titularra/titularrak eta langile autonomo laguntzaileak zenbatuko dira.
- 3.- Eskatzailea langile autonomoa, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada (bertako kideek alta eman behar dute autonomo gisa) eta plantillan besteren konturako langileak baditu, establezimenduaren titularra/titularrak eta besteren konturako langileak zenbatuko dira.
- 4.- Eskatzailea langile autonomoa, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada (bertako kideek alta eman behar dute autonomo gisa) eta plantillan besteren konturako langileak eta autonomo laguntzaileak baditu, establezimenduaren titularra/titularrak, besteren konturako langileak eta autonomo laguntzaileak zenbatuko dira.

### **8.- Establezimendu bat baino gehiago badaukat, eska al dezaket laguntza bat establezimendu bakoitzeko?**

Bai. Eskatzailea gaueko aisialdiko hainbat establezimenduren titularra bada, eskabide bat aurkeztu beharko du horietako establezimendu bakoitzeko (eskabide bat establezimendu bakoitzeko).

### **9.- Zein da laguntza eskatzeko epea?**

Eskaerak egiteko epea 15 egun balioudunekoa izango da, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (2021eko irailaren 15a). Beraz, irailaren 16ko 9: 00etan hasiko da, eta 2021eko urriaren 6ko 23: 59an amaituko da.

### **10.- Nola eta non aurkeztuko ditut?**

Soilik bitarteko elektronikoen bidez (bide telematikoa), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1204401](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1204401)

## **11.- Eskabidea betetzeaz gain, beste dokumentu batzuk aurkeztu behar al ditut? Zeintzuk dira?**

Eskabidea eta gainerako inprimakiak oso-osorik bete behar dira.

Gainera, pertsona edo erakunde eskatzaile motaren arabera, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

### **Beren konturako langileak edo langile autonomoak:**

- 1.- Laguntza eskatzen den establezimenduan jarduteko edo irekitzeko lizentzia edukitzea **2021eko urtarrilaren 1ean**.
- 2.- “Kotizazio kontuaren koderari dagokion lan bizitzaren txostena” 2021eko ekainaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.
- 3.- Plantillan langile autonomo laguntzailerik balego, laguntza eskatzen den gaueko aisialdiko establezimenduarekin duen lan-lotura egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.
- 4.- Borondatezko legezko ordezkari itza egilesteke inprimaki normalizatua <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkari-egilestea-inprimaki-normaldua/>

### **Ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak:**

- 1.- Laguntza eskatzen den establezimenduan jarduteko edo irekitzeko lizentzia edukitzea **2021eko urtarrilaren 1ean**.
- 2.- “Kotizazio kontuaren koderari dagokion lan bizitzaren txostena” 2021eko ekainaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.
- 3.- Plantillan langile autonomo laguntzailerik balego, laguntza eskatzen den gaueko aisialdiko establezimenduarekin duen lan-lotura egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.
- 4.- Onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa ahalordea duen taldearen ordezkaria izendatu dela egiaztatzen duen agiria.
- 5.- Borondatezko legezko ordezkari itza egilesteke inprimaki normalizatua <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkari-egilestea-inprimaki-normaldua/>
- 6.- Gainera, ordezkari-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkari-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu.

### **Enpresak:**

- 1.- Laguntza eskatzen den establezimenduan jarduteko edo irekitzeko lizentzia edukitzea **2021eko urtarrilaren 1ean**.

- 2.- “Kotizazio kontuaren koderari dagokion lan bizitzaren txostena” 2021eko ekainaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.
- 3.- Borondatezko legezko ordezkari itzuli egilesteko inprimaki normalizatua <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>
- 4.- Gainera, ordezkari-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkari-emaileen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu.

## **12.- Bateragarria al da beste laguntzekin?**

Bai. Agindu honen babespean lortutako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik eta/edo erakunde pribatuetatik jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.